

**KOTIZATU GABEKO ERRETIRO- ETA BALIAEZINTASUN-PENTSIOEN BIDEZKO SARREREN EDO ERRENTEN MUGAK**

Pertsona batek errenta eta diru-sarrera nahikoa ez duela uste da, norberaren diru-sarrerak – urte osokoak- pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoak badira (2015. urtean 5.136,60 euro).

Baldin eta eskatzailea bizikidetzaren unitate bateko kidea bada, nahikoa errenta edo diru-sarrerarik ez duela ulertuko da ekonomi batasuneko kide guztien errenta edo diru-sarrera guztiek ezarritako kopurua gainditzen ez dutenean.

<b>2015EKO METATZE-MUGAK</b>			
<b>BIZIK. KP.</b>	<b>EUM OINARRIZKOA</b>	<b>BIZIK. KP.</b>	<b>EUM 2,5</b>
2	8.732,22	2	21.830,55
3	12.327,84	3	30.819,60
4	15.923,46	4	39.808,65
5	19.519,08	5	48.797,70
6	23.114,70	6	57.786,75
7	26.710,32	7	66.775,80
8	30.305,94	8	75.764,85
9	33.901,56	9	84.753,90
10	37.497,18	10	93.742,95

**ZENBATEKOAK, ONURADUN BAT BAINO GEHIAGO DAUDENEAN**

Bizikidetzaren unitate berean badaude

<b>ONUR. KP.</b>	<b>URTEAN</b>	<b>HILEAN</b>
2	4.366,11	311,87
3	4.109,28	293,52
4	3.980,87	284,35
5	3.903,82	278,84
6	3.852,45	275,18
7	3.815,76	272,55
8	3.788,24	270,59
9	3.766,84	269,06
10	3.749,72	267,84

Ekonomi batasuntzat joko da onuradunak berarekin ezkontzaz edo bigarren gradura arteko ahaidetasunez (aita, ama, aitona-amonak, alabak, semeak, ilobak, anaiak, nebak, ahizpak edo arrebak) lotuta dauden pertsonekin, onuradun zein ez, eraturiko bizikidetzaren batasuna.

Zenbatekoa:

1. Onuraduna bakarrik bizi bada:

- Pentsioaren zenbatekoa urtero-urtero finkatzen da Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean, eta urtean zehar 12 ordainketa ohiko eta ekaineko eta azaroko apartekoak egiten dira (366,90 euro hilean 2015. urtean, edo 5.136,60 euro urtean, lehen esan bezala).
- Eskatzailearen diru-sarrerek pentsioaren urte osoko zenbatekoa (5.136,60 euro 2015. urtean) gainditzen badute, ez du pentsiorako eskubiderik.
- Onuradunak bere errenta edo diru-sarrerak dituenean (arestian zehaztutako zenbatekoa gainditzen ez badute), pentsio osoa edo dagokion zatia jasotzeko eskubidea izango du, kasuaren arabera.

2. Onuraduna bizikidetza-unitate ekonomiko bateko kidea bada:

- Aurreko puntuez gainera, bizikidetza-unitate ekonomikoaren urteko diru-sarrerak edo errentak hartuko dira kontuan; horrela, lehenengo taulan ezarritako mugak gainditzen baditu ez du pentsioa jasotzeko eskubiderik izango.
- Bizikidetza-unitate ekonomikoaren diru-sarrerak ezarritako muga horren barruan sartzen badira pentsio osoa edo dagokion zatia jasotzeko eskubidea edukiko luke, kasuaren arabera.
- Bizikidetza-unitate ekonomiko batean pentsioa jasotzeko eskubidea duen pertsona bat baino gehiago badaude, pentsio horietako bakoitzaren zenbatekoa bigarren taulan ezarritakoaren arabera murriztuko da.